



GURE BALIOAK SARIA

GURE BALIOAK SARIA 2024

11. EDIZIOA

Kategoria:

Bizitza osoko ibilbidea

OINARRIAK

DEBEGESAk, Debabarreneko Eskualdeko Garapen Agentziak, Gure Balioak sarien hamaikagarren edizioa sustatu eta babesten du. DEBEGESA Debabarrena eskualdeko 8 udalen partaidetza duen elkarte da: Eibar, Elgoibar, Deba, Mutriku, Soralue, Mendaro, Ermua eta Mallabia. Eskualdeko hazkunde iraunkorra sustatzea du helburu, giza baliabideak eta baliabide materialak mugituz, balio erantsia emanez eta modu proaktiboan.

Esparru horretan kokatzen da Gure Balioak proiektua, zeinaren helburua Debabarrenak **garapen iraunkorra sortzeko beharrezkoak diren balio sozialak indartzea** den, jasangarritasuna ingurumenaren ikuspegitik ez ezik, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik ere ulertuta.

Sari honek indartu eta aitortu nahi dituen funtsezko balioak **integritatea, errespetua, ekintzailtza eta lankidetz**a dira. Azken batean, sari hau definitzen duen filosofiari jarraituz, DEBEGESAk Debabarreneko pertsona guztiak babestu eta balioestearen aldeko apustua egin du, baldin eta horien bizi-ibilbidea edo bultzatutako ekimenak DEBEGESAk eskualdearentzat duen misioari laguntzen badiote: gure lurraldean garapen iraunkorra sortzea, non aberastasuna sortzarekin batera gizarte-kohesioa eta ingurumenarekiko errespetua lortzen diren.

1. **ALDIZKAKOTASUNA:** bi urtekoa.

2. **HELBURUAK**

1. Debabarrenean gizarte-balioak sustatzea, eta haien egoerari eta premiari buruzko hausnarketa-prozesu bat sortzea.
2. Herritarrak eta gizarte-eragileak sentibilizatzea Debabarrenaren garapen jasangarri eta lehiakorrerako giltzarri gisa identifikatutako lau balioen garrantziaz.
3. Eskualdeko pertsona baten ibilbidea ezagutzea, lau funtsezko balioetako bat ordezkatzuz.
4. Ekimen ekintzaileei balioa ematea, bai enpresaren esparruan, bai gizartean.
5. Gazteriarekin eta bere balioen ikuspegiarekin konektatzea eta horien artean eskualdeko balioak sustatzea.

KATEGORIA: BIZITZA IBILBIDEA sariaren oinarriak

1. Sariaren helburua

Pertsona batek bere bizitzan zehar ordezkatu dituen gizarte-balioak saritzea edo aitortzea.

- Integritatea eta errespetua.
- Berrikuntza.
- Solidaritatea eta kooperazioa.
- Gizarte- edo enpresa-ekintzaitza.

2. Nork aurkez ditzake hautagaitzak

- Debabarrenko gizarte-eragileek:
 - Herritarrek
 - Enpresek
 - Elkarteek
 - Ikastetxeek/prestakuntza-zentroek
 - Ikerketa-zentroek
 - Erakundeek
- Norbanakoek, norberaren ekimenez

3. Nor aurkez daiteke: parte hartzeko bete beharreko baldintzak

Informazioa bidaltzeko [formularioa](#) betetzea. Eskuragarri dago Debegesaren webgunean (www.debegesa.eus).

Pertsona hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Debabarrenan jaioa izatea edo bizitza pertsonala edo profesionala Debabarrenan egina izana.
- Bere balio pertsonal eta sozialengatik edozein izaeratako ibilbide aitortua. izatea eta komunitatearen onurarako dedikazioa egiaztatzea.
- Eskualdearekin lotura handia izatea.
- Bizirik egotea.

4. Saria

Oihane Ortega artistaren artelana (Laborak Kutxak babestua).

5. Hautagaitzen balorazioa

Jasotako hautagaitza guztiak Debabarreneko gizarte-, enpresa-, hezkuntza- eta kultura-arloko lau pertsonaz osatutako epaimahai batek aztertu eta ebaluatuko ditu. Sariaren erakunde finantzatzailea epaimahaikideetako bat izango da. Debegesa ekitatea lortzen saiatuko da epaimahaikideen generoari eta lanbide-eremuari dagokienez. DEBEGESAK kalitateko botoa eta berdinketa haustekoa izango ditu (hala gertatuz gero).

Hautagaitzak baloratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

- **Funtsezko 4 balioek** nabarmentzen duten bizi-ibilbidea:

- Integritatea:
 - Etika/Zintzotasuna
 - Beste pertsonetikiko erantzukizun soziala
 - Duintasuna
- Errespetua:
 - Tolerantzia/Aniztasuna onartzea
 - Enpatia
 - Gupida
- Ekintzailetasuna:
 - Gainditze-espirtua
 - Ausardia/Ekimena
 - Ziurgabetasuna onartzea, zoritxarra
 - Espiritu kritikoa
 - Sormena
 - Talentua
 - Ilusioa/Umore ona/Baikortasuna
- Lankidetzak:
 - Elkartasuna/Eskuzabaltasuna

- Konpromisoa/ Inplikazioa/Parte-hartzea
- Elkarrizketa/Negoiazioa
- Konfiantza
- Aukera berdintasuna
- Gizarte hobe baterako utopia
- Errotzea/Bertako izatearen sentimendua

6. Entregatu beharreko dokumentazioa

Hautagitzak aurkezteko [formularioa](#) beteta.

7. Hautagitzak jasotzeko epea

2024ko urriaren 11 izango da hautagitzak aurkezteko **azkeneko eguna**.

Edozein zalantza edo galdera izanez gero, jarri harremanetan hemen:

- Helbidea elektronikoa: marketing@debegesa.eus
- Tel.: 943 82 01 10

Hautagitzaren bat aurkeztu nahi duen pertsona orok bere burua identifikatu beharko du, eta ez da hautagaitza anonimorik onartuko.

8. Egutegia

Fasea	Data
Deialdiaren hasiera	2024ko irailaren 10a
Inskripzioak jasotzeko azkeneko eguna	2024ko urriaren 11
Egiaztatzea eta ebaluatzea	2024ko urriaren 12 eta 25 bitarte
Epaimahaiaren izendapena eta erabakia	2024ko urriaren 28 eta 31 bitarte

Pertsona irabazlearen jakinarazpena	2024ko azaroaren 4a
Sari-banaketa	Azaroaren egitea aurreikusten da. Data zehatza aurrerago jakinaraziko da.

9. Hautagaitza irabazleak

Kategoria bakoitzeko hautagai irabazle bat aukeratuko da, eta beste bi bigarren eta hirugarren postuan. Pertsona irabazlea ezin bada saria jasotzera joan, berak izendatutako beste edozein pertsonak parte hartzea onartuko da.

Hautagai irabazleak uko egiten badio sariari, bigarren hautagaitza bozkatuenari emango zaio, eta horrela, hurrenez hurren, hirugarren hautagaitzara arte. Horietako batek ere ez badu saria onartuko, saria eman gabe geratuko da. Epaimahaiaren iritziz hautagaiek behar besteko mailarik ez badu edo sariaren helburuekin eta balioekin bat ez badator, eman gabe utz daiteke.

10. Baldintza orokorrak

- Parte-hartzaileek onartzen dute emandako informazioa sariaren sustapenerako erabil daitekeela.
- DEBEGESAk sariaren datak eta baldintzak aldatzeko eskubidea izango du, beharrezkoa izanez gero.
- Sarian parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek erabat onartzen direla.

11. Kontaktua

Edozein kontsulta egiteko, interesdunak hemen bidez jar daitezke harremanetan:

- Posta elektronikoa: marketing@debegesa.eus
- Telefonoa: 943 82 01 10 (Larraitx)

- Web orria: www.debegesa.eus